
Prestakuntzako Tailerra: Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetarako gomendioak

Data: **apirilak 10**

Ordutegia: **9:30 - 14:30**

Tokia: [Pinondo Etxea](#) Pinondo plaza, 1

DURANGO, Bizkaia

Norentzat: politikari eta udal komunikazioaren arduradunak

Hizlariak:

Harrera: Ibon Uribe

EUDELeko Batzorde Eragilearen kidea eta Berdintasuneko ordezkaria.

Galdakaoko Alkatea.

Dinamizazioa: Norma Vazquez (Sortzen)

Ikerlari eta prestatzailea emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean

Eudelen bitartez izena emateko:

Telefonoa: 94 423 15 00

berdintasuna@eudel.net

Arduradun teknikoa: Mireia Espiau

Edukia:

Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuak iritzi publikora baino harago doa eta, hedabideetan duten eragina, albiste hutsagatik eduki dezaketen interesa baino askoz handiagoa da.

Hilketek, kaleetako sexu-erasoek edo ikastetxeetako eta beste hainbat esparrutako jazarpeneko kasuek gizartean irudi jakin bat sortzen dute. Irudi hori hedabideetan sortzen da, kasu horiek aurkezteko erabilitako hizkuntzaren eta ikuspegiaren bidez moldatuta.

Gaiari buruz modu kualifikatuan (adibidez okupatzen duen leku politikoagatik) bere iritzia plazaratzen duen edonor emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean lan pedagogikoa egiten ari da.

Horregatik, honek dakarrenari buruz gogoeta egitea funtsezko deritzogu: jendaurreko adierazpenak, elkarretaratzeak deitzea, biktimaren familiari egindako eskaintzak... eta iritzia sortzeaz gain, indarkeria ulertzeko kultura sortzen lagundu dezaketen jarduera guztiak; betiere, norbere bizitzarako ondorio larriak dakartzan indarkeriari aurre egin behar diotenen artean, biktimizazioa sendotzen duten aurreiritziak, zurrumurruek eta iritziak borrokatzeko baliagarria bada.

Helburu orokorra:

Parte-hartzaileek indarkeria matxistako kasuetan komunikatzeko trebeziak hobetzea adierazpen publikoen analisiaren eta ariketa praktikoetan oinarritutako eztabaidaren bitartez. Horien bidez, gaiari buruzko zalantzak edota gaia lantzeko moduari buruzko galderak argitu ahal izango dituzte.

Helburu espezifikoak:

1. Parte-hartzaileek emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari buruz erabilitako **kontzeptuak** ezagutzea, zehaztasunez erabili ahal izateko asmoz.
2. Ikastea sustatzen duen giro batean, parte hartzaileek gai honen inguruan hedabideekiko harremanetan dituzten **zailtasunak** landu ahal izatea.
3. Parte hartzaileek emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan jarduera publikoetarako **gomendioen agiria** aztertzea eta ezagutzea, Berdinsarearen kideek prestatutakoa.

Programa:

- Politikarien **jendaurreko adierazpenetarako** gomendioak
- Hedabideekin **harremanetan ipintzeko** eta indarkeria matxistako kasuen berri emateko gomendioak.
- Sexu erasoak zein indarkeria matxistaren beste adierazpide batzuk egon direnean **biktimarekin eta ingurukoekin harremanak edukitzeko** gomendioak.
- Sexu-erasoen edota genero-indarkeriako kasuen aurrean **mobilizatzeko deialdiak** egitea.

Metodologia:

Parte hartzeko metodologiaren bidez lan egingo da. Hala, mintegi hutsetik harago joango da honako ikastaro hau eta ikasteko tailerra izango da. Horretarako, laneko teknikak hurrengo hauek izango dira:

- **Udaletako politikarien** (alkateak, zinegotziak...) **adierazpenak berrikustea**, indarkeria matxistako kasuak egon direnean, idatzizko hedabideetan zein digitaletan argitaratutakoak.
- **Telebistaren aurreko adierazpenen analisisia**
- **Adierazpenak prestatzea**
- **Rol-playinga**